

Goialdean ageri den izenburuak dioen bezala, jarraian jorratuko dudan gaia IVAP-ek duen estilo liburuaren inguruan izango da. Nori ez zaio pasa bai udaletxera joan edo ta beste instituzio publiko batetara joan eta bertan euskaraz idatzita dauden agiri, dokumentu edo ta bestelako idazkiak esku artean hartzean akatsez beteta daudela ikustea? Jakin badakigu, euskara Euskal Autonomi Erkidegoan hizkuntza ko-ofiziala dela gaztelaniarekin batera, beraz administrazioek oso kontutan hartu beharko lukete ideia hau. Zergatik? Guztiz lotsagarria delako udaletxe batetan euskaraz idatzita dagoen agiri bat gramatika akatsekin ikustea, edo akats ortografikoekin ikustea. Lehen iritzi pertsonal bat bezala, nire ustetan liburu honek duen garrantzia izugarria da, hainbat erregela edo jarraibide jartzen dituelako euskara zuzentasunez erabil eta garrantzitsuagoa dena zuzentasunez idatzi dadin. Beraz, liburu hau sakratutzat hartu beharko luke eguneroko lanean euskaraz idazten duenak. Dena den, argi utzi nahi dena, liburu hau batik bat harreman publikoetarako baliagarria dela, hau da norberak administrazioarekiko duen erlazioetan aplikatu behar dena, beraz harreman pribatuetarako liburu honek duen baliagarritasuna murrizta da. Dena den, liburu honek jorratzen dituen atalak ezin erabilgarriagoak suertatzen dira euskara maila igo dadin eta horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik, gai hau hautatu dut sakontasun gehiagorekin ikasi eta jorratzeko.

Argitu nahiko nukeen lehenengo ideia liburu hau egitearen zergatia da. Liburuan bertan topa dezakegunez, IVAP-en iritzia eta nahia da euskal administrazioan kalitatezko komunikazioa sustatzea, kalitatea testu zuzenak, jatorrak, egokiak eta argiak sortzea delarik. Ideia horretan buru belarri murgilduta, liburu hau ezinbestekoa da. Liburuan bertan ikus dezakegunez, 1996. Urtean plazaratu zen IVAPen estilo liburua eta plazaratzearen zergatia erraza da azaltzen: administrazioan gehienbat zebiltzan langile bakoitzak bere kabuz edo bere aldetik zebilen idazkiak, testuak, dokumentuak prestatzeko orduan eta horren ondorio nabarmenena zen hamaika modu desberdinetan kaleratzen zirela. Egoera hori ezin zitekeen denbora luzez mantendu eta nolabaiteko irtenbidea eman nahian, ondo idazteko gomendioak eta aholkuak proposatzeko bidea aurkitu zen, IVAPen estilo-liburuari esker. IVAPek maneiatzen dituen datuen arabera, egoerak laster egin zuen onera eta testu, dokumentu eta agiri desberdinek estiko eta itxura bateratua izan zuten. Dena den, ezin genezake ahaztu, badirela urte asko liburu hau argitaratu zenetik, eta liburuak berak dioen bezala mundua ez da geldirik egon. IVAPek Euskaltzaindiak egin dituen gomendio berriak jaso ditu, adibidez ordenagailu bidez egiten diren komunikazioak, eta modu horretan aurrera egin du urteak joan ahala.

Bigarrenik, liburu hau zazpi ataletan banandua dago, atal bakoitzak gai konkretu bat jorratzen duelarik. Zazpi atalak hurrengoak lirateke; idazketa-prozesua, gramatika, estiloa, diseinua, zuzenketa, idazkiak eta osagarriak azkenik. Beraz, nire hurrengo betebeharra atal bakoitzak zer eduki dituen azaltzea izango da. Aztertuko dudan lehenengo atala idazketa-prozesuari dagokiona da. Sail honetan, laburpen modura azalduta idazleak dituen zailtasunak eta gorabeherak paperaren aurrean jartzen denetik, testua amaitutzat eman arte azaltzen da. Atal honetan, esan genezake ideia basikoenak kontutan hartzen direla, hala nola egoera komunikatiboa, nola sortzen ditugun ideia eta ideia horiek zuzentasunez eraman eskema batetara, hau da azkenik eta ideia garrantzitsuena bezala izango zen testu egitura begi aurrean izatea idazten hasi baina lehen. Aztertu beharreko bigarren puntua, gramatikarena da. Honetan suposatzen da testua lehen atalean azaldu bezala egituratua dugula eta testu egituratu horren gainean kalitatezkoa izan dadin, zuzena izan behar du gramatika aldetik. Beraz, atal honetan aintzat hartu beharreko irizpidea Euskaltzaindiak ematen dituen gomendioak dira. Gramatika atal hau irakurtzen duen idazleak ez du aurkituko gramatika arazo guztien erantzuna edo deskribapena, baizik eta arazo edo zalantza sortarazten dituztenak bakarrik, hau da: ortografia akatsak, deklinabide akatsak, zenbaki

idazkera edo munduko estatu izenak, hiriburuak eta herritarren izena, munduko estatuetakozko hizkuntza ofiziala nola idatzi, mundu zabaleko uharte nagusiak, aintziren izenak, Grezia eta Erromako pertsonaia mitologikoen izenak, latin eta greziar pertsonaien izen klasikoak, santutegiko izen ohizkoenak, nola idatzi aurkituko ditugu. Atal hau alde batera utzita, estiloari dagokion atala izango dut irizpide. Testua dagoeneko itsura landua hartzen ari da, egituratua eta gramatika aldetik zuzena delako. Dena den, hori ez da nahikoa eta kalitatezko testu bat lortu nahi baldin badugu, euskara jatorrean idatzi beharko dugu. Hemen akats larrienak erdaratik maileguak hartzean datza edo erdaratik itzulpenak egitean datza, beraz erdararen morrontzatik aske dagoen testu bat lortu behar dugu. Ideia hau delarik gure nahia, estilo-liburuak aholku eta gomendio ugari ematen dizkigu hori lortzeko; adibidez kalkoak edo erdal formulak ekiditeko baliabideak eskura jartzen dizkigu. Jada, liburuaren laugarren atalean murgilduta aurkitzen gara, hain zuzen diseinuari dagokion atalean. Askotan edo maiz pasatzen testu bat oso tekniko edo landua izan arren ez dela erakargarria suertatzen. Hori ekiditzeko, IVAPen estilo liburuak hainbat gomendio dakartza bere orrietan barne. Orriak, begientzako irudiak direla kontutan izanik, eta irudiak komunikazio indar handia duela kontutan izanik, diseinua kontu handiz tratatu behar den atal bat da. Horregatik, idazki, dokumentu, txosten edo ta bestelako idatzien itxura zaintzea ezin liteke garrantzitsuagoa izan, azken batean hori delako irakurleak izango duen lehen kontaktua idazkiarekin eta kontaktua ona edo txarra delarik, irakurleak irakurtzen jarraituko du edo ta bestalde alde batera utzi eta beste testu batekin jarriko da. Hori horrela ez izateko, IVAP-en liburuak hainbat eta hainbat pautak ezberdin dauzka bere orrien barne. Hurrengo atala zuzenketari buruzkoa da, eta bertan estilo liburuak azpimarratu egiten du zer nolako garrantzia duen zuzenketak idazketa prozesuaren barnean. Zergatia ezin liteke errazagoa izan, bada orain arte egindako esfortzu guztia pikutara joan daitekeelako zuzenketa egin ezean. Beraz, zuzenketa nola egin nahi izanez gero, bosgarren atala ikustea besterik ez dago, eta bertan azaltzen da argitasun osoz nola ekin lan horretan. Jarraian azalduko dudana atal, nire ustez orain arte azaldu ditudan ataletan interesgarriena izango litzateke, zeren atal honetan ikus daiteke zer nolako itxura izan behar duen testuak zuzena izan dadin. Atal honen izena idazkiak da, eta atal honetan IVAPek gure esku jartzen digu 30 idazki desberdin, guk hautatu ahal izateko interesgarrien suertatzen dakigukeena eta aurrean izan dezagun gure kabuz egiten dugunean. Esan bezala praktikotasun aldetik, atal interesgarriena. Azken atala, osagarri buruz hitz egiten digu. Zer diren osagarriak azaltzen zaigu lehen orrietan eta administrazio arloan lan egiten duten langileei lagungarriak izan daitezkeen bestelako informazioak biltzen dira bertan, haien artean udalerrien izen ofizialak, laburtzapenen eta administrazioko terminoen hiztegia agertzen direlarik besteak beste.

Lan monografiko honi bukaera bat eman legez, balorazio txiki bat eman nahiko nioke orain arte ikasi dudana buruz. IVAPen estilo liburuak ikus bezala tresna ezin erabilgarriagoa da euskaraz lan eta egunerok idazten duenarentzat, beti ere kontutan izanda administrazioan lan egiten duten langileei zuzenduta dagoela. Honetaz gain, duela urte batzuk jende askoren ahotan entzun zen goiburua bat betetzeko balio duela uste dut, hain zuzen ere "Nik administrazioan euskaraz" dioena. Dena den, nire ustez IVAPeko estilo liburuak betetzen duen funtzioetan importanteena da euskaraz ondo, zuzeneta modu jator batean idazten "irakasten". Irakasten diot liburu hau gidaliburu bat moduan hartu beharko lutekeelako administrazioan lan egiten dutenek, eta zergatia aurkitzea erraza da. Arrazoa da administrazioa herritarrek askotan ejenpluzat hartzen dutelako, eta hartzen ez dutenek hartu beharko lukete, administrazioa bait da botere publikoa eta hark diona santutzat hartzen delako, beraz administrazioak euskara (Euskal Autonomi Erkidegoan hizkuntza koofiziala) zuzentasun, jatoritasun eta zuzentasunez erabiltzen ez badu, nork egingo du? Beraz eta itxiera moduan, IVAPeko estilo-liburuak zuen hasierako erronka latza zen, baina urteak aurrera joan ahala, bere helburua gutxika-gutxika baldin bada ere, betetzen ari dela esan genezake, baldin eta lan ugari dagoela egiteko kontutan hartzen badugu. Dena den, tresna hauek, garrantzi handia dute euskararen egoera gaur egunean aztertzen dugunean, zeren herritarren esku jartzen dituzten baliabideak ezin litezke erabilgarriagoak izan. Beraz, txalokatzerik beste ez da gelditzen eta lanean jardun, batetik estilo-liburu hau zaharkitua gera ez dadin, eta bestalde euskara hobetzen lagunduko gaituzten tresna edo baliabide gehiago atera daitezten.

